



**UDALBATZAK 2011KO APIRILAREN 15EAN  
EGINIKO EZOHIKO OSOKO BILKURARI  
DAGOKION AKTA**

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE  
PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL  
DIA 15 DE ABRIL DE 2011**

Errenteriako udaletxean, bi mila hamaikako apirilaren 15eko eguerdiko 12:00etan, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 12:00 horas del día 15 de abril del año dos mil once, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- M<sup>a</sup> Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRÉS JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Lucía PERALTA RODRIGUEZ
- M<sup>a</sup> Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Ez dira etorri baina ezinetorria adierazi dute Gorka MAUDES MIGELTORENAK (atxiki gabeko zinegotzia) eta Venancio GRAVINA ESNALek (EAJ/PNV).

No asisten, excusando su asistencia, Gorka MAUDES MIGELTORENA (Concejal no adscrito) y Venancio GRAVINA ESNAL (EAJ/PNV).

Era berean, bertan dago Udal kontu-hartzaile Txema ARENZANA GARCIA jauna.

Igualmente asiste el Interventor Municipal D. Txema ARENZANA GARCIA

Bertan dago halaber, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.



**Puntu bakarra. Atxiki gabeko zinegotziek aurkezturiko mozioa, Murias Center 4 enpresaren egoera ekonomiko-finantzieroa aztertzeke batzorde berezi bat eratzeko eskaera eginez.**

Legegintzaldi hau hasi zenetik Murias Center 4 enpresaren jardueraz ez da inongo eztabaidarik eman, ezta informaziorik ere. Guk eskuratu ahal izan dugun informazioaren arabera, besteek informazio gehiago edo gutxiago duten ez dakigu, egoera oso zaila dela pentsatzen dugu.

Hartu genuen ardura politikoari erantzunez, egindako irakurketa ekonomikoa zuzena den jakitea beharrezkoa da egoera horrek sor ditzakeen ondorioak edo kalteak zehazteko eta ahal den neurrian bere eragina arintzeko.

Gure herriko jarduera ekonomikoan zerbitzu honek izan behar duen eragin positiboa ezinbestekoa dela onartzen dugu denok; honen ondorioz, eta enpresa horretan dugun ardurari irmoz erantzunez, ditugun baliabide guztiak martxan jarri behar ditugu aipatu helburua lortu ahal izateko.

Aurreko guztia esan eta gero Udalbatzarrari honako akordioak har ditzan egiten diogu

## PROPOSAMENA

1. Murias Center 4 enpresaren egoera ekonomiko-finantzieroa aztertzeke udalean dagoen ordezkapen politikoa errespetatuko duen batzorde berezia sortzea.

**Punto único.- Moción presentada por los Concejales no Adscritos solicitando una comisión especial para el estudio de la situación económico-financiera de la empresa Murias Center 4.**

Desde el inicio de esta legislatura no ha habido ningún tipo de debate en relación a la actividad de la empresa Murias Center 4, ni tampoco información de la misma. Según la información recopilada por nosotros, no sabemos si los demás disponen de otro tipo o no, creemos que la situación es altamente difícil.

Atendiendo a la responsabilidad política adquirida, y con el fin de esclarecer que la lectura económica efectuada es correcta, consideramos necesario la concreción de los efectos o perjuicios que pueda acarrear dicha situación y, en la medida de lo posible, mitigar sus consecuencias.

Todos compartimos que es imprescindible que este servicio genere efectos positivos en la actividad económica en nuestro pueblo, y por tanto, y respondiendo con firmeza a la responsabilidad que tenemos en dicha empresa, creemos que hay que poner en marcha todos los recursos disponibles para poder conseguir el mencionado objetivo.

Por todo lo expresado, solicitamos al Pleno de la Corporación que adopte los siguientes acuerdos.

## PROPUESTA

1.- Crear una comisión especial que respete la representación política existente en el Ayuntamiento para el estudio de la situación económico-financiera de la empresa Murias Center 4.



2. Akordio hartzen den egunetik sei egunen buruan batzordea biltzeko deia egitea.

2.- Convocar la reunión de la comisión a los seis días de haber tomado este acuerdo.

3. Batzorde honen aholku lanak eta idazkari lanak egiteko Udalaren Kontu-hartzailea izendatzea.

3.- Nombrar al Interventor para que realice los trabajos correspondientes de secretario y asesoramiento de la comisión.

Jarraian ondorengoak mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

\* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du labor jardungo duela, besteak beste, gai honen inguruan hainbat bilera egin eta mozio aurkeztu dituztelako. Honekin beste pauso bat eman nahi dute, izan ere, Murias Center enpresaren partaide diren heinean iruditzen zaie erantzukizunez jokatu behar dutela eta, zoritxarrez, askotan, ez dutelako nahiko informaziorik haren jardueraz eta egoera ekonomikoaz. Mozio honen bidez talde politiko guztien artean osatuko luketen batzorde berezi bat sortzea nahi dute, azken finean, enpresa horri jarraipen bat egiteko, azken urte hauetako ibilbidea nahiko iskanbilatsua izan delako.

\* Toma la palabra el Sr. Angulo (Concejal no adscrito) y manifiesta en euskera que va a intervenir brevemente, ya que en torno a ese tema han realizado varias reuniones y han presentado diversas mociones. Con la presente desean dar un paso más, ya que en la medida que son miembros de la empresa Murias Center consideran que tienen que actuar con responsabilidad y porque, desgraciadamente, en numerosas ocasiones no disponen de información suficiente de su actividad y de su situación económica. A través de la moción desean formar una comisión especial entre todos los grupos políticos para efectuar un seguimiento a dicha empresa debido a que en los últimos años su andadura ha sido un tanto conflictiva.

\* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du proposamen alternatibo bat egiteko asmoa duela. Aldez aurretik, ordea, gaiari buruz mintzatzeko aukera emango die.

\* Interviene el Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) e informa que va a presentar una propuesta alternativa. Previamente da paso a las intervenciones sobre el tema.

\* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du, lehen ere adierazi izan duen moduan, arazoa lehenbailehen konpontzearen aldekoa dela, eta beraz, hainbat hiletan izandako bileratan arazoa azkar konpondu behar denari buruz esandakoak bere egiten ditu. Gaineratu duenez, hainbat arazoirengatik lehen egin gabe utzitako bilera bat egiteke dute oraindik, eta bera deialdi horren zain dago. Bere aburuz, eurek eskuartean duten guztia egin behar dute, behingoz, arazoa amaitutzat emateko. Haren arabera, berak ez daki batzorde

\* Toma la palabra el Sr. Burgos (Alkarbide) e indica, como ya lo ha expresado anteriormente, que está por la labor de solucionar cuanto antes el problema y que hace suyas las palabras dichas en las reuniones mantenidas durante muchos meses sobre que la solución del problema debe darse pronto. Añade que todavía hay pendiente una reunión, que se tuvo que suspender por varios motivos, estando a la espera de su convocatoria. Lo que se puede hacer es poner todo lo que tengan en sus manos para que, una vez por todas, el problema



berezi batek arazoa konpon dezakeen, edo bideragarriagoa ote den azterlan alternatibo bat egitea. Bera arazoa konponduko lukeen edozein proposamen bultzatzearen alde egongo litzateke, zeinak langileei Udalari baino askozaz gehiago eragiten baitie.

\* Peralta andreak (PP) esan du, bere iritziz, gai honi konponbiderik aurkitu ez bazaio ere, nahikoa eztabaidatua dagoela. Hala ere, berari gustatuko zitzaiokeen, behingoz, eta herri honetako langileen mesederako, konponbide bat aurkitzea. Gaineratu duenez, berak ez daki zein metodo erabil zitekeen Murias jauna —akordio bat lortu eta langileak lanean hasteko— mahai batean eseri arazteko. Bere taldeko partaideak prest daude, afera hau konpondu eta kontua lehenbailehen amaitzearren, edozein soluziobide bultzatzeko.

\* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du, mozioa proposatu duenak planteatzen zuen moduan, euren ez dakite gauza gehiegirik Udalak %10eko partaidetza duen enpresaz. Bere iritziz, lehenbiziko errekonozitu beharko lukete —uste du hor erraz iritsiko lirakeela akordio batera— informazio guti dutela Murias Center-4 enpresaren martxari buruz, Udal honek parte hartzen duten beste erakundeetako informazioa falta zaien bezalaxe. Jarraian, Alkateari zera eskatu dio: bera izanik Udalak Murias Center-4 enpresan duen ordezkaria, enpresaren egoera ekonomikoari buruzko informazio guztia emateko, zeina, mozioa proposatu duten pertsonen ustetan konplikatu delako, eta, bere aburuz hori delako mozioaren muina. Berak bere gain hartzen du bere taldeko partaideei dagokien erantzukizun-zatia. Alabaina, berak ez ditu enpresaren kontu horiek, eta uste du Alkatea berarekin bat etorriko dela, Udalaren ordezkariaren erantzukizuna dela udal taldeek, edo gutxienez bera partaide denak, enpresaren egoera ekonomikoa eta

se de por zanjado. Continua diciendo que no sabe si una comisión especial puede ser la que solucione el problema, o si es más indicado un estudio alternativo. Él estaría dispuesto a apoyar cualquier propuesta que dé solución a ese problema que atañe al Ayuntamiento, pero que mucho más atañe a los trabajadores.

\* La Sra. Peralta (PP) cree que este tema está suficientemente debatido aunque no se le ha dado ninguna solución. Le gustaría que de una vez por todas y en beneficio de los trabajadores de este pueblo se le hubiera dado ya una solución. No sabe, añade, que métodos se podrían utilizar para obligar al Sr. Murias a que se sentara a una mesa para llegar a un acuerdo y para que los trabajadores puedan empezar su trabajo. Los miembros de su partido están de acuerdo en apoyar cualquier solución que se le dé a este tema y zarjar cuanto antes el asunto.

\* El Sr. Ferradas (Ezker Batua-Berdeak) manifiesta que, como antes planteaba el proponente de la moción, no saben demasiadas cosas de una empresa en la cual el Ayuntamiento es copartícipe en un 10%. Piensa que lo primero es reconocer —cree que ahí llegaran facilmente a un acuerdo— que hay un déficit informativo sobre la marcha de la empresa Murias Centre-4 como, por cierto, hay déficit de información de otros organismos donde participa este Ayuntamiento. En ese sentido, considera que es algo a solucionar y corregir. A continuación pide al Alcalde, como representante del Ayuntamiento en Murias Center-4, que facilite toda la información disponible sobre la situación económica de la empresa, la cual, al parecer de las personas proponentes de la moción, es complicada, y que según él entiende, es el contenido de la moción. Asume la parte que les pueda tocar de responsabilidad a los miembros de su grupo. No dispone de esas cuentas, pero el Alcalde convendrá con él en que también es responsabilidad del



jarduerari buruzko informazioa sekula jaso ez izana. Bere aburuz, bere aurretik

hitz egin dutenek bezala, mozioak proposatzen duena baino gauza gehiagoz hitz egin beharko lukete. Edonola ere, berak ez daki, Alkateaz gain, Murias Center-4 enpresako ordezkari gisa jardun behar duen edo ez, baina bai azaldu nahi duela bere kexa eta haserrea enpresa horrek Udaltzari ematen dion tratua, esaterako, zinegotziekin eseri eta enpresaren martxari buruzko azalpenarik eman nahi ez izatea. Berak ez daki Murias Center-4 enpresa ekonomia aldetik eraginkorra ote den, baina badaki, jakin, merkatalguneari dagokionez, besteak beste, orain itxita dagoelako, ez dela batere eraginkorra. Era berean, uste du gogoratu behar zaiola, SABECO kontratua ez betetzeagatik ezarri zitzaion demandak, nolabait, merkatalgune hori itxia egon dadin lagundu zuela. Gainera, bere aburuz, Justiziak ere errekonozitu du hori horrela dela. Berak uste du une honetan esan beharko zitzaiela horrelako zerbait egiten ari direla. Gaineratu duenez, merkatalgunea itxita dago, eta bertan dauden guztiek herrian gauzarik hoberena pasa dadin nahi dutenez, eta badakitenez zer nolako esangura duen —edo eduki beharko lukeen— merkatalguneak Niessengo Merkataritza Zentroan, eta beraz, Errenteriako merkataritza, berak deia egiten die enpresatako pertsona guztiei eta Murias Center-4 enpresan Udaleko ordezkariari erantzukizunez jarduteko. Bere aburuz, SABECO ez zuen erantzukizun sozial eta enpresarialarekin jardun, hori berak baieztatu, eta besteek ere erraz aski bat egin dezakete. Horrela, berari ez litzaioke batere gustatuko entzutea arduragabetasun horrekin berarekin ari direla jarduten Murias Center-4 enpresa eta Udala.

\* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du kontua EAJren ikuspuntutik ikusita, Murias Center-4 eta Niessengo Merkatalgunean bat bestearekin zerikusi

representante que los grupos municipales, o al menos el suyo, no hayan recibido

nunca información sobre la marcha de la sociedad tanto a nivel económico como a nivel de actividad. Continúa diciendo que piensa, como los que lo han antecedido en el uso de la palabra, que es cuestión de hablar de otras cosas más allá de lo que la moción propone. En todo caso, no sabe si hacer de representante en la empresa Murias Center-4 aparte del Alcalde, pero sí quiere trasladar su queja y malestar por el trato que la citada empresa está dando a esta Corporación, entre otras cosas porque no ha encontrado un hueco para sentarse con los concejales y explicarles la marcha de la empresa. No sabe si Murias Center-4 será eficiente a nivel económico, pero, en todo caso, está siendo ineficiente en relación a la superficie comercial ya que ahora mismo está cerrada. También hay que recordarle, añade, que cuando le puso una demanda a SABECO por incumplimiento de contrato, de alguna forma favoreció que ese centro comercial estuviese cerrado, además, la Justicia ha reconocido la certeza de esa apreciación. Habría que decirles que están incurriendo en algo similar en estos momentos. Añade que el centro comercial está cerrado y que como todos los presentes quieren lo mejor para este pueblo y saben el papel que juega – o debiese jugar- el centro comercial en la buena marcha del Centro Comercial Niessen y por extensión del comercio de Errenteria, hace una llamada al conjunto de personas de empresa y Ayuntamiento que estén en Murias Center-4 para que ejerza esa responsabilidad. SABECO pecó de irresponsabilidad social y empresarial, cosa que piensa que se puede afirmar y que puede ser fácilmente compartida. Le disgustaría tener que llegar a afirmar que esa misma irresponsabilidad la está cometiendo Murias Center-4 y el Ayuntamiento.

\* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que por tratar de centrar la cuestión bajo el punto de vista del PNV aprecian, en relación a



handia duten bi arazo daudela. Gaineratu duenez, orain merkatalgunea itxita dago. Gune hau merkatalguneko motorra izateko asmoarekin zabaldu zen, eta aldi berean merkataritza guztirako motor-traktorea izatea, edo gutxienez, erdi aldeko merkataritzako pizgarria izatea nahi zen, baina denek ikusten dute helburu hura ez dela betetzen ari. Gainera, honek berekin dakar merkatalguneko langileek bizi duten egoera. Haren iritziz, Udal honek behin eta birritan adierazi du, aho batez, elementu eraginkorra izan nahi duela eta konponbidean parte hartu nahi duela. Berari gaiak atsekabetasuna eragin dio, hain zuen ez dakielako nola kudeatu den ebazpen-prozesua. Ez du horren berririk, nahiz eta behin baino gehiagotan eskatu duen Erakunde honek duen %10eko partaidetzaren inguruan berri emateko. Ahalegin horiek ez dute fruiturik eman, eta beraz, gaur egun duten informazio bakarra gatazkan ukiturik dauden langileek emarikoa da, esan du. Beraz, bada, beretzat horiek dira Udalarekin zerikusia duten bi arazoak. Haren aburuz, mozioak ez ditu kontu horiek aitzaten, aitzitik Murias Center-4 enpresaren egoera ekonomiko-finantzieroa aipatzen du. Bera erabat bat dator Ferradas jaunarekin (Ezker Batua-Berdeak), gaiaren berri jakin behar dela esaten zuenean. Gainera, ez du soilik enpresaren egoera ekonomiko-finantzieroa berri jakin nahi, baizik eta Udalak partaidetza (portzentajea edozein dela ere) duen guztietakoa. Haren iritziz, egia da —ez legegintzaldi honetan ez aurrekoan—, gaia ez dela eztabaidatu, baina batzuetan nahikoa izaten da txinparta bat gauzak mahai gainean jartzeko. Informazioa eskatzeko eta Murias Center-4 enpresaren egoera ekonomiko-finantzieroa abordatzeko kontua SABECO enpresako arazoak sortu du. Hori horrela, bera bat dator Udal honen ardura dela aferaren berri zuzena izan eta, ahal duen neurrian eta eskumenen arabera, eragitea Udalak partaidetza duen enpresen garapenean. Berak mozioa arlo horretan kokatzen du. Ez daki batzorde berezi baten beharrik badagoen, baina bere taldearentzat oinarri-oinarrizkoa da enpresa honen eta besteen egoera ekonomiko-finantzieroa

Murias Center-4 y Centro Comercial Niessen, que hay dos problemas que están íntimamente relacionados. Añade que la superficie comercial está cerrada. Superficie que se concibió como el motor del centro comercial, que a su vez ejercía de motor tractor de todo el comercio, o por lo menos de la reactivación del comercio del centro del pueblo, y a la vista de todos está que ese objetivo no se está cumpliendo. Esto lleva aparejada la situación en la que se encuentran las que eran trabajadoras de ese centro comercial. Este Ayuntamiento, añade, se ha posicionado en repetidas ocasiones de manera unánime en ser elemento proactivo y tomar parte en esa solución. A ella el tema le ha generado insatisfacción porque desconoce como se ha gestionado el proceso de resolución. Lo desconoce porque aunque se ha requerido en varias ocasiones que se diera cuenta en relación al 10% del accionariado que esta Institución tiene, esos esfuerzos se han visto frustrados, por lo que la única información que hoy tienen es la proporcionada por la parte trabajadora afectada en el conflicto. Estos son los elementos y los dos problemas que ella situaría y que tienen incidencia con respecto al Ayuntamiento. Continúa diciendo que la moción que se presenta no hace alusión a eso. Hace alusión a la situación económica-financiera de la empresa Murias Center-4. Comparte absolutamente la intervención del Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) cuando decía que hay que conocer. Ella lo hace extensiva a la necesidad de conocer no solo la situación económico-financiera de esa empresa sino de todas aquellas en las que el Ayuntamiento tiene una parte, sea el porcentaje que sea. Sigue diciendo que es verdad que hay veces que no se ha debatido ni en esta legislatura ni en la anterior, pero hay veces que una chispa vale para poner las cosas sobre la Mesa. El detonante de que se solicite esta información y de que se aborde el tema de la situación económico-financiera de la Empresa Murias Center-4 ha sido el problema de SABECO. Llegados a este punto, coincide en que es responsabilidad de esta Corporación conocer de primera mano e incidir,



ezagutzea.

\* Murua jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du atxiki gabeko zinegotziek aurkeztu duten mozioan planteatzen dutela Udalak akzio zenbait dituen enpresaren egoera ekonomiko-finantzieroa jakitea. Jarraian zera galdetu du: zer galdetuko zuketuen herri honetako biztanleek jakingo balute Udaleko arduradunak Udala bera parte den sozietate baten kontuez ez dela arduratzen. Bere aburuz, herritarrek ez lukete ulertuko interes falta hori. Jarraian, beste taldeak alboko gaiez aritu direnez, berak uste du kontu hau merkatalgune horrek egin kudeaketa finantzieroengatik eman dela. Ez dute ahaztu behar, gainera, duela gutxi bi bilera egiteko eskaera egin dutela: bat, bozeramaileek enpresarekin egiteko, eta bestea, berriz, Administrazio Kontseiluarekin. Azken hau ezohikoa eta presazkoa, eta gaur gaurkoz, hil bat pasatakoan, oraindik ez dutela erantzunik jaso. Atxiki gabeko zinegotzientzat jarrera hori enpresa kudeatzailearen errespetu falta da. Izan ere, erakunde modura enpresa horrek merkatalgune hori kudeatu zezan konfiantza ipini zuten, eta bere aburuz, jarrera horrekin hautsi egiten da lehen jarritako konfiantza hori. Beraz, erakundeak jarritako konfiantza hori hautsi izanak eta finantza-ekonomia aldetik behin eta berriz hartutako neurriak direla eta, eurek beharrezkoa ikusten dute enpresaren egoera ekonomiko-finantzieroa sakon aztertzeke beharra. Izan ere, behin ezarritako konfiantza hori hausten bada, dena hankaz gora jartzen da eta hausnarketa sakona egin behar da kudeaketa horrek izan ditzakeen ondorioez. Azken finean, mozioan horixe planteatzen dute, talde guztiek alde egongo

en la medida de sus posibilidades y competencias, en el desarrollo de las empresas en las que el Ayuntamiento tiene participación. En ese sentido es donde ella situaría la moción. No sabe si una comisión especial, pero lo que sí es básico para los miembros de su grupo es conocer la situación económico-financiera de esta empresa y de otras.

\* El Sr. Murua (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) indica que efectivamente la moción que han presentado los Concejales no adscritos viene a plantear la necesidad de conocer la situación económica-financiera de una empresa en la que este Ayuntamiento tiene una parte de accionariado. A continuación se pregunta qué interrogante les asaltaría a los habitantes de este municipio si supieran que los responsables de este Ayuntamiento ni concocen ni les preocupan las cuentas de una sociedad de la que son partícipes. Los vecinos no entenderían esa falta de interés. Seguidamente, como los demás grupos se han extendido en otros aspectos que son colaterales, dice que esto ha venido propiciado por la gestión financiera que se ha hecho desde ese emplazamiento comercial. No pueden olvidar que recientemente se han solicitado dos reuniones. Una a nivel de portavoces con la empresa y otra a nivel del Consejo de Administración, ésta última con carácter de extraordinaria y urgente, y que, al día de hoy, después de un mes, todavía no han tenido ninguna respuesta. Para los Concejales no adscritos eso es una actitud irrespetuosa de la empresa gestora. Como institución depositaron su confianza para que gestionase ese enclave comercial

y, a su entender, esa actitud supone una quiebra de esa confianza. Añade que el hecho de la quiebra de confianza institucional y las sucesivas medidas que se han tomado a nivel financiero-económico, los llevan a plantear la necesidad de abordar en profundidad la situación económico-financiera de la empresa. En el momento en el que hay una



beharko luketela pentsatzen dutelarik. Ondoren, esan du beste formula ezberdin bat ere egon litekeela, hori ez dezake ukatu. Hala, atxiki gabeko zinegotziak pozten dira mozioak ahalbidetu duelako beste taldeak egoeraz interesatzea eta alternatiba diferenteak proposatzea, guztien buruan, Udaltzaren eta herri honetako interesak hobekien defendatzen dituen onartzeko. Horregatik, eurek ez daude beste alternatibei itxiak, aitzitik, ahal duten neurrian, jarrerak hurbiltzea nahiko lukete enpresaren egoera ekonomiko-finantziera ondo ezagutzearren beharrezko baliabideak ezartzeko, eta hortik aurrera, bidezko neurriak hartzeko.

\* Merino alkate jaunak (Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak) uste du bi gai nahasten ari direla, hots, zerikusia izan badezakete ere, inondik inora ez dira berdinak. SABECOz hitz egiten ari dira, funtzionamendu jakin bat duen enpresa eta langileekin auziak dituen. Hori da kontu bat. Bestea, ordea, Murias Center-4 enpresa da, zerbitzuaren emakidaduna. Biak dute merkatalgunearen martxarekin zerikusia, baina maila differentean eta esparru ezberdinetan. Horregatik, uste du bi arazo nahasten ari direla, bere aburuz, egin ez dezaketena. Bestalde, Murias Center-4 enpresaren portaeraz baieztapen zenbait egin dira, eta nahiz eta berak ez duen zertaz defendatu bakar bat ere, uste du, egiaz, berari Alkate gisa Murias Center-4 enpresari Administrazio Kontseiluko bilera eskatuz, etab. eginiko eskaera guztiak erantzunak izan direla. Izan ere, gauza pare bat argitzeko Administrazio Kontseilua deitzeko eginiko azkeneko eskaera gauzatu da. Horrela, azken egun hauetan akta egin dute, eta banatu ez badute, denborarik aski izan ez dutelako da. Bere ustez, Murias Center-4 enpresak

quiebra en la confianza, todo se “pone patas arriba” y requiere una reflexión profunda sobre las consecuencia de la gestión. Eso es, en definitiva, lo que plantea la moción, a la que cree que todos los grupos deberían mostrar su apoyo. Continúa diciendo que puede haber otra fórmula distinta, cosa que no va a negar. Los Concejales no adscritos se felicitan por el hecho de que esta moción pueda provocar que haya otros grupos que también, interesados por esta situación, propongan diferentes alternativas y, en base a ello, aprobar la que les parezca que mejor defiende los intereses de la Corporación y de este municipio. Por ello, no están cerrados a que se presenten otras alternativas y procuraran, en la medidas de sus posibilidades, acercar las posiciones para que se establezca el mecanismo necesario que les permita conocer con precisión la situación económico-financiera y, a partir de ahí, adoptar las medidas que crean convenientes.

\* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak) piensa que se están mezclando dos temas, que podrán tener relación pero que, en absoluto, son los mismos. Están hablando de SABECO, una empresa que tiene un funcionamiento determinado y que está inmersa en un contencioso con sus trabajadores. Esa es una de las cuestiones. Otra cuestión es que existe una empresa, Murias Center-4, concesionaria de un servicio. Ambas tienen que ver con la marcha del centro comercial, pero, a distinto nivel y desde diferentes ámbitos. Por lo tanto, cree que parte de las intervenciones están mezclando dos problemas que, a su entender, no pueden mezclarse. Por otro lado, se están haciendo afirmaciones sobre el comportamiento de Murias Center-4, y que aunque no tiene por qué defender a ninguna de las dos partes, dice, en honor de la verdad, que cuantas peticiones le han hecho como Alcalde para dirigirse a Murias Center-4 reclamándole reuniones del Consejo de Administración, etc., se han cumplido en su totalidad. De hecho, la última petición que se le ha hecho de





sekula ez ditu utzi erantzun gabe egin zaizkion eskakizunak. Gero, Murias Center-4 enpresaren kontuak ez dituztela ezagutzen eta eman ditzaten eskatu behar zaiela eta, berak uste du hori ez dela horrela, besteak beste, enpresa horrek, urteak joan urteak etorri, sozietatearen kontuak Udal honi aurkezteko betebeharra bete duelako. Kontu horiek Ogasuna departamentuak daude, gaineratu du. Haren ustetan, auditoriak edo aurreko ekitaldien itxierak kontuak azaldu dituzte. Beraz, bada, kontuen berririk ez dutela moduko baieztapenak gezurrak dira. Udal honek, behar den bideetatik, badu Murias Center-4 enpresaren kontuen berri, zerikusia duen beste enpresatako kontuak ezagutzen dituen bezala. Hori guztiagatik, jakinarazten du proposamen alternatibo bat egingo duela, zeina onartua izango balitz, atxiki gabeko zinegotziak batzorde berezi bat sortzeko aurkezturikoa indarrrik gabe utziko bailuke.

convocar el Consejo de Administración para dilucidar un par de temas, se ha hecho. En estos últimos días se ha elaborado el acta, y si no se ha repartido es porque no ha habido tiempo material para hacerlo. Entiende que Murias Center-4 no ha faltado nunca a los requerimientos que, en forma, se le han hecho. En cuanto a decir que como desconocen las cuentas de Murias Center-4 van a pedirle que se las facilite, indica que eso no es así, porque la citada empresa ha cumplido con su obligación año tras año presentando el estado de cuentas de la sociedad a este Ayuntamiento. Cuentas que están depositadas en el Departamento de Hacienda. Añade que cuando se han hecho las auditorías o el cierre de los ejercicios anteriores las cuentas han figurado. Por tanto, las afirmaciones sobre que no se conocen las cuentas son falsas. Este Ayuntamiento conoce por los cauces adecuados las cuentas de la empresa Murias Centre-4, lo mismo que conoce las cuentas de otras empresas con las que tienen relación. A la vista de ello, informa que va a presentar una propuesta alternativa que, de ser aceptada, invalidaría la presentada por los Concejales no Adscritos de creación de una comisión especial.

Jarraian.

Seguidamente.

Alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ondoko proposamen alternatiboa egin du:

Vista la siguiente moción alternativa presentada por el Alcalde (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak):

“Agintzea Udaleko ekonomia-zerbitzuei, behar duten aholkularitzarekin, Murias Center 4 enpresak aurkezturiko balantzei buruzko txostena egin dezaten.

“Encomendar a los Servicios Económicos del Ayuntamiento, con el asesoramiento que le sea necesario, para que elabore un informe sobre los balances económicos presentados por Murias Center-4.

Ondoren txosten hori Ogasuna batzordeak aztertuko du”.

Posteriormente se analizará dicho informe por la Comisión de Hacienda”.

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:



\* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia), berriro, esan du atxiki gabeko zinegotziek saiatuko direla afera honi konponbide bat aurkitzeko garaian ahalik eta kontsentsurik handiena lortzen. Gaineratu duenez, eurek proposamen bat egin dute, baina berriro aurkitu dira jarraitu beharreko prozedura zein den ez dakitela. Jarraian, Alkateari arren eskatu dio kontu hori Udalbatzaren aholkulari juridikoari planteatzeko bozketa egin aurretik. Hau esaten du ahalik eta kontsentsurik handiena lortzeko asmoarekin. Edonola ere, Alkateak eginiko planteamenduaren inguruan, gustatuko litzaioke epeen inguruan proposamena zehatzagoa izatea, hain zuzen berorietaz ez delako ezer esaten eta atxiki gabeko zinegotziek aurkezturiko mozioan sei eguneko epe bat jartzen delako batzordea lanean has dadin. Horrez gain, lehenengo eta behin, jakin nahi du ea prozeduraren barruan alternatibarik aurkez litekeen, eta bigarrenez, azpimarratu nahi du Alkateak aurkezturiko mozio alternatiboa ez dela atxiki gabeko zinegotziek nahiko luketen bezain zehatza. Horregatik, gustatuko litzaioke jakitea dagoen bezala mantentzen duen edo epeei dagokionez aldaketaren bat egiteko prest egongo litzatekeen. Jarraian, esan du pozten dela Administrazio Kontseilua egin izanaz. Bere iritziz, nahikoa izango zatekeen taldeetako bozeramaileei jakinaraztea —eskertuko zuketen— bilera egin zela, akta idatzi arte itxaron beharrean. Hala ere, gogorazi nahi oraindik egiteke dutela Bozeramaileen Batzordea eta langileen ordezkari sindikal eta Murias Center-4 enpresako ordezkarien artean, hil bat baino itxaroten daramatelako.

\* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, lehenengo, ez dela Alkatetzaren errua izan Muruak jaunak aitatu duen

\* Toma la palabra el Sr. Murua (Concejal no adscrito) e insiste en que los Concejales no Adscritos intentarán encontrar el mayor consenso posible a la hora de establecer una solución en este asunto. Añade que han hecho una propuesta y que vuelven a encontrarse en una situación de desconocimiento en cuanto al procedimiento. No saben si en un pleno extraordinario cabe presentar alternativa alguna. A continuación le ruega al Alcalde que plantee esa cuestión al Asesor Jurídico de la Corporación antes de pasar a votación. Dice esto desde su postura de lograr el mayor consenso en esta situación. En todo caso, y de cara al planteamiento hecho por la Alcaldía, indica que le gustaría que la propuesta fuera más concreta en cuanto a los plazos, ya que no se dice nada respecto a los mismos, mientras que en la moción presentada por los Concejales no Adscritos se establece un plazo de seis días para que la comisión empiece a trabajar. Dice a continuación que, en primer lugar, le gustaría saber si dentro del procedimiento cabe presentar alternativas y, en segundo lugar, incidir en que la moción alternativa que presenta el Alcalde no es tan concreta como los Concejales no Adscritos quieren, por lo que le gustaría saber si la mantiene tal y como está o si haría alguna matización en relación a los plazos. Seguidamente dice que le alegra escuchar que ya se ha celebrado el Consejo de Administración. Entiende que hubiera sido suficiente haber comunicado a los portavoces de los grupos que se había celebrado sin esperar a que se redactara el acta, cosa que hubieran agradecido. Pero, quiere recordar que sigue pendiente una reunión de la Junta de Portavoces y de un representante sindical de los trabajadores con el representante de la empresa Murias Center-4, que lleva más de un mes sin celebrarse.

\* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) en primer lugar aclara que no ha sido culpa de la Alcaldía si no se ha llevado a efecto



bilera egin ez izana. Administrazio Kontseiluak deia egina zuela jakinaraztea eskertuko zukeenaz esandakoaren inguruan, apika, berak ere Murua jaunari (atxiki gabeko zinegotzia) eskertuko zekiokoen galdetu izan balio. Mamira pasatuz, berriz, esan du berak ez lukeela sekula egingo, eta ez du uste egingo duenik —ez duelako pentsatzen aldatzea ez delako gomendagarria— gaia hau legezkoa edo egokia den teknikariari eskatzea da. Gaineratu duenez, irizpide bat ez dagoenean Udalbatzaren buruaren ustez bidezkoena denak agintzen du. Ondoren, esan du egoera hau ez dela berria, martxaren arabera, bat-batean aurkezten dena, baizik eta, bestetan egin ohi den gisan, mozio alternatiboak egin izan dira. Haren aburuz, denek badakite hori bidezkoa eta zilegi dela. Beraz, bada, martxaren arabera alternatibo bat aurkeztu dute. Era berean, uste du zinegotziek bidezkoa ikusten duten beste edozein alternatibo aurkez dezaketela. Bere aburuz, berak aurkezturiko alternatiboak oso planteamendu argiak egiten ditu. Ondorioz, gehitu diezaioketen gauza bakarra, gainontzeko zinegotziek nahi izanez gero, ahalik eta lehen egin dadila eskatzea da, hain zuzen bera ez delako alde aurretik teknikariek txostena egiten behar duten denbora ezartzeko bezain ausarta.

\* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du kontua ez dela inori “laban bat ipintzea”, are gutxiago udal funtzionario bati. Baina legegintzaldia maiatzaren 22an amaitzen da, eta beraz, edo espresuki hartzen dute konpromisoa batzorde hori egun hori baino lehenago egingo dela, edo Alkateak proposatzen duena alferrikakoa da. Bere aburuz, gehiegietan ibili dira alfer lanetan.

\* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du maiatzaren 22 oso egintza zehatza gertatuko dela, baina horregatik ez

la reunión a la que se ha hecho referencia. En cuanto a que se le hubiera agradecido que comunicase que se había convocado el Consejo de Administración, dice que a lo mejor él también hubiera agradecido al Sr. Murua (Concejal no adscrito) que se lo hubiera preguntado. Pasando a lo sustancial, manifiesta que él lo que no ha hecho nunca, ni cree que vaya a cambiar porque piensa que no es recomendable, es pedirle a ningún técnico que se pronuncie por la legalidad o idoneidad de este asunto. En ausencia de otro criterio, añade, prevalece lo que quien preside este Pleno estime oportuno. Continua diciendo que no es una situación nueva que “in noche”, sobre la marcha, se presenten alternativas a las mociones como se ha hecho otras veces. Añade que todos tienen constancia de que es totalmente válido y legítimo. Por lo tanto, ha presentado sobre la marcha una alternativa. También por parte de los Corporativos se puede presentar cualquier otra alternativa que estimen conveniente. Concretamente sobre la alternativa que ha presentado dice que tiene la virtualidad de ser totalmente clara en sus planteamientos. Lo único que cabría añadir, si el resto de Concejales quieren, es que todo ello se debe hacer a la mayor brevedad posible, ya que no es tan osado como para fijar “a priori” el tiempo que van a necesitar los técnicos para elaborar el informe.

\* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) indica que no se trata de “poner un cuchillo” sobre nadie, y menos sobre un funcionario municipal. Pero la legislatura se acaba el 22 de mayo y, o hay un compromiso explícito sobre que antes de ese día se celebre la comisión, o si no esto es “un brindis al sol” que propone hacer el Alcalde. Considera que en esta cuestión ya se han hecho demasiados “brindis al sol”.

\* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) en contestación recuerda que el día 22 de mayo hay un acto muy concreto pero que



dela mundua bukatzen.

\* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du mintzatu diren zinegotzi bakar batek ere ez diola Alkateari leporatu bera denik arduradun Murias Center-4 enpresaren kudeaketak desio zuten emaitzak ez eman izanaz. Eurek ez dute inolako zalantzarik Alkateak —berak hala aitatzaz gain— bete duela Udalbatzaren edo Bozeramaileen Batzordearen agindua. Bere iritziz, kritika bete ez duenaren aldera doaz. Bestalde, mozioaren bigarren puntuak akordioa hartu osteko 6. eguna batzorderako deia egitea da eskatzen da. Hau esaten du inor engainatu ez dadin, zeren eta, bere ustez gaia ez da konponduko akordio hartu ondorengo sei egunetan. Gaineratu duenez, denek badakite zer egiten den batzorde berezi batean. Elkartu eta lanean hasten dira. Horrela, lehenbiziko dagoen informazio guztia batzen hasi beharko lukete eta bidezko txostenak eskatzen. Txosten horiek, bestalde, jada eskatzen ari dira Ogasuna batzordera eramateko, horrek deia egiteko epeak jarrita dituelarik. Hau da, Alkateak pitin bat zehatzagoa izan beharko zukeela, baina atxiki gabeko zinegotziek aurkezturiko mozioak ez du batzordearen deialdia noiz egingo litzatekeen baino zehaztasun gehiagorik ipintzen. Ez du ezer esaten emaitzaz, ezta jarraitu beharreko urratsez ere, hurrengo bilera noiz izango litzatekeen ere ipini ez duelako. Amaitzeko, uste du, mamiarekin denak ados baldin badaude, akordio batera iritsi beharko luketela, jakinik jatorrizko mozioak batzordearen deia egiteko epea baino ez duela jartzen.

\* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotziak) adierazi du argi eta garbi dagoela mozioak ez duela planteatzen seigarren egunetik aurrera Udalbatzak erabaki bat hartu behar duela. Proposamenarekin seigarren egunetik aurrera jakin nahiko lukete nolakoa den enpresaren egoera ekonomiko-

no se acaba el mundo por ello.

\* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que ninguno de los concejales que han intervenido ha imputado al Alcalde la responsabilidad de que las gestiones ante Murias Center-4 no hayan dado los resultados deseados. No tienen ninguna duda de que el Alcalde —además de que él así lo ha comentado— ha cumplido el mandato del Pleno o de la Junta de Portavoces. La crítica va hacia la parte que no ha cumplido. Por otro lado, comenta que lo que se pide en el segundo punto de la moción es convocar la comisión a los 6 días de haber tomado el acuerdo. Aclara esto para que no se lleven a engaño y crean que a los seis días de haber adoptado el acuerdo se va a resolver este tema. Añade que todos saben lo que se hace en una comisión especial. Se reúnen y empiezan a trabajar. Lo primero que tendrían que hacer es recopilar toda la información y pedir los informes correspondientes. Informes que por otro lado se están pidiendo ya para derivarlos a la Comisión de Hacienda, que sí tiene unos plazos de convocatoria establecidos. Es decir, que el Alcalde tendría que ser un poco más concreto, pero que en la moción presentada por los Concejales no Adscritos tampoco hay mayor concreción que la de la fijación de la convocatoria de la comisión, no sobre los resultados ni sobre los siguientes pasos a seguir, porque ni tan siquiera se ha establecido cuando será la próxima reunión. Finaliza diciendo que es importante que se haga y que, si en el fondo todos están de acuerdo, espera que puedan llegar a un acuerdo partiendo de la base de que en la moción original solo se fija el plazo para la convocatoria de la comisión.

\* El Sr. Murua (Concejal no adscrito) indica que está claro que la moción no plantea que a partir del sexto día el Pleno tome alguna decisión. Lo que sí permite la propuesta es que el sexto día a partir de este Pleno conozcan y puedan tener una visión de la situación económica-financiera de la empresa y que,



finantzieroa, eta, Alkateak planteatzen duen txosten teknikoa ez badu ere, uste du azalpenak eska ditzakeela. Amaitzeko, bere aburuz, atxiki gabeko zinegotziek aurkezturiko mozioa Alkateak eginikoa baino zehatzagoa da. Biek gauza bera planteatzen dute, baina ordena diferentea da: Alkatearenak lehenbiziko txosten teknikoa eta gero batzordea egitea planteatzen du, eta atxiki gabeko zinegotzienak, berriz, bilera egiteko egun finkoa eta gero txostena egitea planteatzen du. Udalbatza gisa, informazio hori bakarrik bederen nahi badute, uste du jatorrizko mozioaren epeak zehatzagoak direla hura erdiesteko. Amaitzeko, prozedurari dagokionez, esan du aurreko osoko bilkuran Aurrekontuei egin zioten osoko zuzenketa alternatiboa ez zela bozkatu.

\* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du talde baten edo besten erabakiren batez hitz egiten ari balira, beharbada, atzeratzen ari dela leporatuko zioten, oztopoak jartzeaz, etab. Bera, orde, planteatzen ari dena teknikariek markatu behar dituztela urratsak, eta bere aburuz, bakar bat ere ez du atzeratzeko edo antzeko zerbaiten asmorik. Are gehiago, badute kontuen berri, urteak joan urteak etorri, Udalera ekartzen dituztelako. Bestalde, gainera, ez dezakete esan kontuen berririk ez dutela. Ezagutzen ez badituzte, nahi izan ez dutelako izango da, nabarmendu du.

\* Peña andreak (EAJ/PNV) Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) dokumentazioa jasotzeko sei egunetara biltzeko emaniko garrantziaz, uste du Ogasunak ezohiko bilera bat eginez gaia konpon lezakeela, besteak beste, dokumentu horiek Udaletxean daudelako, eta bertako teknikariak informazioa eman dezakeelako.

Jarraian epeei buruz eta zein izango

aunque no tenga el vigor que el informe técnico que plantea el Alcalde, puedan pedir explicaciones. Para finalizar dice que la moción presentada por Concejales no Adscritos es más concreta que la que presenta el Alcalde. Las dos moción plantean lo mismo en relación al funcionamiento, pero alteran el orden: en la del Alcalde se plantea hacer primero el informe técnico y luego la comisión, y en la de los Concejales no Adscritos se plantea una fecha fija para la reunión y posteriormente el informe. Si como Corporación quieren tener aunque solo sea información sobre esa empresa, cree que los plazos de la moción original son más concretos para poder conseguirlos. Para finalizar, en relación al procedimineto, dice que la alternativa que se presentó al Presupuesto en el Pleno anterior fue la enmienda a la totalidad y, sin embargo, no se votó.

\* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) indica que si estuvieran hablando de las decisiones de un grupo o de otro, a lo mejor podrían estar acusándose de dilación, obstruccionismo, etc. Lo que él está planteando es que sean los técnicos quienes marquen las pautas y no cree que ninguno de ellos vaya a entrar en un periodo dilatorio ni en nada que se le parezca. Además va más allá y repite que las cuentas las conocen porque año tras año se han depositado en el Ayuntamiento. Por tanto, no pueden alegar que no conocen las cuentas. Si no las conocen será porque no han querido conocerlas.

\* La Sra. Peña (EAJ/PNV) en base a la importancia -planteada por el Sr. Murua (Concejal no adscrito)- de reunirse a los seis días para recabar documentación, indica que se puede conducir el tema a través de Hacienda y convocar una comisión extraordinaria para repartir la documentación que ya está en poder del Ayuntamiento, informando el técnico a partir de ahí.

A continuación se produce un debate sobre



litzatekeen prozedurarik egokienaren inguruan eztabaidan aritu dira. Azkenean, Alkateak onartu du sartzea mozio alternatiboaren ondoko paragrafoa:

“Dena ahalik eta azkarren egitearren, maiatzaren lehenengo astean Ogasuna batzordea deitzeko konpromisoa hartu dute”.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Eta aurreko paragrafoa sartu ostean.

Udalbatzak, aho batez,

los plazos y sobre cual sería el procedimiento más adecuado a seguir en este tema, en base al cual el Alcalde acepta incluir el siguiente párrafo en la moción alternativa por él presentada:

“Todo ello, a la mayor brevedad posible, con el compromiso de convocar una comisión de Hacienda en la primera semana de mayo”.

Finalizadas las intervenciones.

Incluido el párrafo anterior.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

## ERABAKIDU

- **Onartzea** Alkateak aurkezturiko proposamen alternatiboa.

“Agintzea Udaleko ekonomia-zerbitzuei, behar duten aholkularitzarekin, Murias Center 4 enpresak aurkezturiko balantzei buruzko txostena egin dezaten.

Ondoren txosten hori Ogasuna batzordeak aztertuko du.

Dena ahalik eta azkarren egitearren, maiatzaren lehenengo astean Ogasuna batzordea deitzeko konpromisoa hartu dute”.

-----

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 12:45 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut

## ACUERDA

- **APROBAR** la siguiente moción alternativa presentada por el Alcalde.

“Encomendar a los Servicios Económicos del Ayuntamiento, con el asesoramiento que le sea necesario, para que elabore un informe sobre los balances económicos presentados por Murias Center-4.

Posteriormente se analizará dicho informe por la Comisión de Hacienda.

Todo ello, a la mayor brevedad posible, con el compromiso de convocar una comisión de Hacienda en la primera semana de mayo”.

-----

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 12:45 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente



Erkidego Autonomoko paper ofizialean, 960441 zenbaitik 960450ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Acta en los folios números 960441 al 960450 del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.